

TXORIERRIKO JAIAK 2016

EKAINAK 3, OSTIRALA

- 18:00 h. - Txupinazoa eta jaien hasiera. Parkean, Erdiguneko plazan.
18:30 h. - Koadrilen jaitsiera, "ZARATAMBA" Batukadak girotuta.
Auzotar guztiek parte hartu ahal izango dute. Auzo osoko kaleetatik egingo da ibilbidea, Batukadaren erritmoan.
19:30 h. - MOLTO GP lasterketa.
Txapelketa hau auzoko "TXOU" elkarteak antolatuko du. 2 eta 4 urte bitarteko umeentzako moto lasterketa da. Parkean egingo da, plazan.
19:45 h. - Jolasak.
23:30 h. - "RASPU" DJa
Gauetz, Raspu DJak jarriko du martxa heldu eta umeentzako disko festarekin.

EKAINAK 4, LARUNBATA

- 10:00 h. - Txupinazoa eta krossean izena emateko epea irekitzea.
Krosserako izen ematea auzoko kulturagunean egingo da.
11:00 h. - Herri krossa
Herritar guztientzat da, baina kategoria desberdinak daude (hastapena, aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta helduak).
11:30 h. - Tortilla lehiaketan izena emateko epea (Txosnan)
11:30 h.- Haur parkea puzgarri, ludoteka eta zezen mekanikoarekin
Parkean, erdiguneko plazan. Eguraldi txarrarekin, ordea, Ondizko frontoian egingo da.
12:00 h. - Igel-toka eta bolo txapelketak (Helduentzat).
Nagusien Etxeak antolatzen du, nagusientzat. Parkean, plazan, izango da.
12:00 h. - Umeentzako lehiaketa: txapel-jaurtiketa
16 urte arteko umeentzat. Parke-plazan.
14:00 h. - Tortillen aurkezpena.
Nagusien Etxean.
16:30 h. - MUS txapelketa
Auzoko tabernetan. Helduentzat.
16:30 h. - "Mirador Kafetegia" Futbolin txapelketa.
Mirador kafetegian egiten da, 16 urte arteko umeentzat.
16:30 h. - Haur parkea puzgarri eta zezen mekanikoarekin.
16:30 h. - Koadrilen jokoak (arto-buruak, sokatira)
Nagusien Etxe ondoko plazan, adin guztietako pertsonentzat.
19:30 h.- Emanaldia: "XAIBOR".
Xaiborren kamioitik bertatik izango da emanaldia, Nagusien Etxe ondoko errepidean aparkatuta egongo dena. Partaideak plazan egongo dira.
19:30 h. - Txorizoa denontzat
Txosnaren hegalean.
21:30 h. - Play backa
Plazako agertokian, adin guztientzat.
23:30 h. - Iker Fernandez DJa
Iker Fernandez DJak jarriko du martxa dantzaldian.

EKAINAK 5, IGANDEA

10:00 h. - Txupinazoa

11:00 h. - Gozogintza lehiaketarako izena ematea. (Txosnan)

11:00 h. - Talo tailerra

Umeentzat. Plazan egingo da, karpa azpian.

11:30 h. - Txapel-jaurtiketa eta petanka txapelketak (erretiratuentzat)

Nagusien Etxeak antolatzen du, nagusientzat. Parkean, plazan, izango da.

12:30 h. - Dantza alardea.

Plazan.

13:30 h. - Gozogintza lehiaketako gozokien aurkezpena

Nagusien Etxean

14:00 h. - Herri bazkaria

Plazan. Eguraldi txarrarekin, ordea, probalekuan egingo da.

16:30 h. - Tute txapelketa

Auzoko tabernetan. Helduentzat.

16:30 h. – “Mirador Kafetegia” Futbolin txapelketako finala.

16:30 h. – Ur gerra.

Umeentzat. Zelaian.

16:30 h.- Ume eta nagusientzako karaokea.

Plazako agertokian.

20:00 h. - Sari banaketa, zozketa eta jaien bukaera.